

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2024ko martxoaren 1eko erabakiaren laburpena: horren bidez, Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdia, 2024-2025 aldirako onetsi zen

BDNS(Identif.): 747756.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/747756>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurrei-kusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke:

Lehena. Onuradunak

Vitoria-Gasteizko udalerriko etxebizitzak eta lokalen jabe edo gozamedunak diren pertsona fisikoak, Gasteizko Erdi Aroko hirigunean etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko indarrean dauden laguntzen deialdeari atxikitako eremua izan ezik.

Gaur egun udal-dirulaguntza kobratzeko eskubidea aitortuta ez duten edo deialdian aurrei-kusitako ekintzengatik udal-laguntza jaso ez duten pertsona fisikoak.

Bigarrena. Helburua

Vitoria-Gasteizko udalerriko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak ezartzea, 2024-2025eko ekitaldietarako.

Hirugarrena. Oinarriak

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Lau milioi eurokoa (4.000.000,00 euro) da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2025eko abenduaren 31ean amaituko da edo aurreko egun baliodunean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a

Hirigintza zuzendari nagusia
SUSANA VIZCARRA SARASOLA